

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 244/2016 Foru Agindua, urriaren 6koa, zeinaren bidez "Artziniegako arau subsidiarioen 4. aldaketa puntualaren" ingurumen txosten estrategikoa ematen baita (Artziniega, Araba)"

Artziniegako arau subsidiarioen 4. aldaketa puntuala izapidetzeko, ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuari jarraitu behar zaio, zeina Ingurumen Ebaluazioaren Legeak arautzen baitu (21/2013 Legea, abenduaren 9koa).

Foru agindu honek, bestalde, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak eskatuta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2016ko irailaren 30ean emandako ingurumen txosten estrategikoan ezarritako balorazioa, determinazioak eta baldintzak jasotzen ditu. Foru Agindua eman eta ALHAOn argitaratu zen 21/2013 Legearen 31. artikulua hiru garren idazpuruan jasotako xedapenei jarraituz.

Prozedura horren barruan, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuan sartu zen Artziniegako Udalaren idazki bat, Artziniegako arau subsidiarioen 4. aldaketa puntualaren ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura abiaraztearren, aldaketa hori honetan datzala: Artziniegako 4. poligonoko 701 lurzatiaren zati baten kategoria, "lurzoru urbanizaezina – babes berezia – interes naturalistako gunea" eta "basogintzako babesa", hain zuzen, aldatzea. Idazkiarekin batera, sustatzaileak ingurumen agiri estrategikoa ere aurkeztu zuen, bai eta Artziniegako arau subsidiarioen 4. aldaketa puntualaren aurrerapena ere.

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, agiri horiek jaso ondoren, hasiera eman zion eragiten zaien herri administrazioei eta interesa duten pertsonen kontsulta egiteko urratsari, 21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak eman zuen 2016ko irailaren 30ean.

1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen denaren arabera, Artziniegako arau subsidiarioen 4. aldaketa puntualarekin lortu nahi den helburua da "arau subsidiarioak hobetzea, udalak egun dituen beharrezko egokituz, hau da: garapen sozioekonomikoa eta ingurumen iraunkortasuna bateratzea". Aldaketa puntuala, berez, honetan datza: Artziniegako 4. poligonoko 701 lurzatiaren zati bat aldatzea (zuhaitzik gabeko eremua), haren kategoria aldatuz "babes bereziko lurzoru urbanizaezina – natura intereseko gunea" eta "basogintzako babesa" kategoriatik "trantsiziozko landa paisaia" kategoriarara.

Alde horretatik, honako hau adierazten da: "aldaketa puntual horren bidez bermatzen da erlezaintzako proiektu berezi eta ekologiko baten bideragarritasuna, aukera ematen baitaio erlezainari bere lanbideari dagozkion eraikuntzak eta instalazioak ezartzeko, hartara bete egiten delarik 209/2.002 Errege Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoa (Errege Dekretu horrek arautzen du erlezaintza Estatuan)".

Azkenik, ingurumen agiri estrategikoan jasotzen denez, "aldaketa puntual honek aukera ematen du konpontzeko erasandako lurzatiaren lurzorua sailkatzen duten araudi sektorial batzuen eta besteen artean dauden bat ez etortzeak. Helburua da goragoko maila bateko araudiak ezarritakoak izan dezala lehentasuna; alegia, Eusko Jurlairitzaren Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialak, Artziniegako arau subsidiarioetan ezarritako xedapenen gainetik".

2. Kontsulta fasearen laburpena:

Ondoren, kontsulta egin zaien erakunde, entitate eta elkarteen zerrenda ematen da, eta haietatik zeinek erantzun duten adierazten da:

URA - Uraren Euskal Agentzia	√
Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurune eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Naturaren Arabako Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza	
GAIA elkarte	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumeneko Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartasuna	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	
Arabako Kontzejuen Elkarte	
SEO Birdlife	
Artziniegako Udala	
Aiarako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua (Ura)	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	√

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoak, laburbilduta (alegazio edo adierazpenen kopia osoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 16/64 espedientean dago, bai eta www.araba.eus webgunean ere):

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak hau adierazi du: “azterturik espedienteko dokumentazioa, jakinarazten zaizu ezen Museo eta Arkeologia Zerbitzuak ez duela dokumentatu aipatzen den lurzati horretan arkeologia intereseko hondarririk dagoenik”.

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzako Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak adierazi du ezen “aurkeztutako agiriak ez dituztela definitzen erlezaintzako ustiategiaren neurriak, aipatzen den jarduera hori gauzatzeko behar diren instalazioak ez eta haien neurriak, ez eta erlezaintzako ustiategiak bete beharreko gutxieneko baldintzak ezartzen dituen 209/2002 Errege Dekretuaren 8. artikuluari erantzuteko beharrezkoak diren hornidura elektrikoaren, uraren eta saneamenduaren azpiegituri buruzkoak ere. Nolanahi ere, arau subsidiarioen aldaketa puntual honek eragiten dion lurzatiak ez ditu hartzen gune hartako nekazaritza azpiegiturak, sarbide zuzena baitu eskualde errepide baterako, eta ez inolako landabidetik”.

- URA agentziak idazki bat helarazi zuen adieraziz ezen bi txosten jasoko direla, bat URarena berarena eta beste txosten sektorial bat Konfederazio Hidrografikoarena. Txosten hau ematen den egunean, artean ez dugu jaso txosten horietako bat ere.

- Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak txostena eman zuen hutsegitez, Artziniegako udalerriko beste espediente bati buruz.

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak hau adierazi zuen: “azterturik egun Kultura Ondarearen Zentroak bere esku daukan dokumentazioa eta helarazitako dokumentazioa, jakinarazten du ezen aldaketak erasaten duen eremuan ez dela ageri Kultura Ondareko elementu katalogaturik”.

• Eusko Jaurilaritzako Natura Inguruneko eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritzak honako hau ondorioztatu zuen bere txostenean: “sustatzaileak ez du aurkeztu birkalifikatzekoa den eremuaren zedarriztapen argirik, eta ez du deskribatzen xehetasunez zer erlezaintza instalazio kokatu nahi dituen Artziniegako 4. poligonoko 701 lurzatian. Nolanahi ere, lehen-lehenik, kontuan hartuz natur eta paisaia balio handiko ingurune bati buruz ari garela, Zuzendaritza honek uste du gune horrek baduela gaitasuna erlauntzak hartzeko, baina ez erlezaintzako beste eraikuntza batzuk”. Aurreko hori gorabehera, txosten horretan bertan, lehenagoko zati batzuetan, hau adierazten da: “ez dira baimenduko ezta eta erlezaintzako beste produktu batzuk ontziratzearekin zerikusi zuzenik ez daukaten beste erabilera batzuk, eta ezta ere neurri nabarmeneko instalaziorik ere, paisaian inpaktua eragiten badu” eta, orobat, “erlezaintzako jarduerarekin lotutako eraikuntzak ingurunearen paisaian integratu beharko dira”. Era berean, txostenaren edukian hainbat baldintza eta betekizun ezartzen dira arau subsidiarioen aldaketa puntualak dakartzan ingurumen inpaktuak gutxitzeko, eta, nabarmentzekotan, honako hau nabarmendu beharko litzateke: “lursailen birkalifikazioak eragin behar die basogintza eta nekazaritzako plan sektorialean trantsiziozko landa paisaiatzat jotzen diren eremuei ez besteri (ezta landarediaren mapan 6510 habitat gisa jasotzen den eremuari), eta, nolanahi ere, kanpoan utzi beharko dira zuhaitziak, bai trinkoak, bai barreiatuak (...)”.

3. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa. Aztertu diren kokaleku posibleak

Ebaluatu nahi den eremu geografikoa.

Artziniegako arau subsidiarioen 4. aldaketa puntualaren eremua bat dator Artziniegako 4. poligonoko 701 lurzatiko eremu zuhaitzik gabearekin (4. aldaketa hori, esan dugunez, lurzati baten kategoria aldatzeko da, lurzoru urbanizaezin “babes berezia – interes naturalistako gunea” eta “basogintzako babes” kategoriatik “trantsiziozko landa paisaia” kategoriara, hain zuzen).. Lurzati horretan bada hostozabalen mendi autoktonoko eremu aski zabal bat, eta lurzatia bera hurbil dago Erretes Tudela eta Gordelizko herrietatik, zeintzuetara A-4625 errepidetik baitago sarbidea, lurzati horrekin muga egiten duelarik. Lurzati horretan, berebat, bada natur ingurune bat, ingurumen babeseko moduetako bat ere izan ez arren natura balio nabarmenak dauzkana.

Aztertu diren kokaleku posibleak.

Ingurumen agiri estrategikoan jasotako dokumentaziotik ondorioztatzen da honakoak direla proposatu diren aukerak:

Jatorrizko aukera: Erlauntza instalazioa , 8 zenbakiko onura publikoko “Peñalba” mendiko 4. poligonoko 660 lurzatian.

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen denez, aukera hori ezetsi egin zuen Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuak, bere zerbitzu teknikoek Mendi Zerbitzuaren 225/15 espedientearen barruan emandako txostenaren bitartez. Kokalekua ezesteko determinazioen oinarria hau izan zen: “inguruak sute arrisku handia izatea, lurra lantzeko justifikaziorik ez dago erlezaintzarako, eta nekazaritzako eraikuntza/instalazioak ez dira zilegi OPMn”. Ukatu egiten da proposatutako kokalekurako baimena, eta beste kokaleku batzuk proposatzen dira, herri basoetako lursailetan, edo, osterantzean, erlezainari galdatzen zaio bila ditzala beste kokaleku batzuk lursail partikularretan, errentan hartuta, edo erlezainaren beraren jabetzako sailetan. Horregatik guztiagatik, sustatzaileak bereganatu egin du Artziniegako 4. poligonoko 701. lurzatia.

0 Aukera: ez esku hartzea.

Aintzat hartu da 0 aukera edo arau subsidiarioetako jatorrizko egoeran ez esku hartzeko aukera, zeinak 4. poligonoko 701 lurzatiko lurzoru urbanizaezina “babes bereziko – interes naturalistako gune” eta “basogintzako babes” gisa kalifikatzen baitu. Lurzati horretan zilegi izango da erlauntzak ezartzea lursailan, eta ez da zilegi izango lanbideak berezko dituen instalazio edo eraikuntzetako bat ere ez. Aukera horretan, guztiz galaraziko litzateke erlezaintzako proiektua, eta, horrekin, eragotzi egingo liriteke polinizatzaile horiek natur ingurune horretan.

1 aukera: aldaketa puntualaren proposamena.

Artziniegako arau subsidiarioen 4. aldaketa puntualak eragingo luke Artziniegako 4. poligonoko lurzatiaren zati baten kategoria aldatzea (eremu zuhaitz gabearena), lurzoru urbanizaezin "babes berezia – interes naturalistako gune" eta "basogintzako babes" kategoriatik "trantsiziozko landa paisaiaren" kategoriara, eta, hartara, zilegi izango litzateke lurzati horretan erlezaintzarako instalazioak ezartzea, "bermatuz landa garapen iraunkor bat", sustatzaileak dioenez.

4. Ebaluazio prozesuaren analisia. Ingurumen eragin nagusiak

Azterturik Artziniegako arau subsidiarioen 4. aldaketa puntualaren sustatzaileek aurkeztutako dokumentazioa, gure iritziz, agiri horrek, oro har, behar besteko kalitatea du txosten honen xedea den ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua gauzatzeko, nahiz eta antzeman diren zenbait hutsune aldaketa puntualaren eremuan ezartzekoak diren eraikinak eta/edo eraikuntzak direla-eta, geroagoko atal batzuetan aztertuko denez.

Artziniegako arau subsidiarioen 4. aldaketa puntualean aipatzen diren jardunen ondoriozko ingurumen inpaktu nagusiek zerikusia dute, batez ere, bi alderdi hauekin: erlezaintza iraunkor batek biodibertsitateari ekarri ahal dizkion onurekin, eta, beste alde batetik, "Peñalbatik Babiorako haranak" izeneko 57. zenbakiko aparteko paisaia gisa (betiere Arabako Lurralde Historikoko paisaia bikain eta apartekoen katalogoaren arabera, zeina Diputatuen Kontseiluaren irailaren 27ko 829/2005 Erabakiarekin onartu baitzen) eta korridore ekologiko gisa (Arabako Foru Aldundiaren korridore ekologikoen sarearen arabera; Arabako Lurralde Historikoko konektibitate ekologiko-paisaizkoaren estrategia. Ingurumen Zuzendaritza. Arabako Foru Aldundia. 2005) kalifikatutako eremu batean erlezaintzarekin zerikusia duten instalazioak ezarriz paisaiaren gainean eragin daitezkeen ondorioekin. Era berean, aldaketa puntualaren ondoriozko beste ingurumen eragin nagusietako bat da ke-hauspoa zuhaitz ugari inguru batean erabiliz eragin daitezkeen sute arrisku handia, Batasunaren Intereseko Habitat Katalogatuen 9240 zenbakikoaren erakoak daudelarrik bertan, alegia, erkameziak, Quercus faginea eta Quercus canariensis motako iberiar hariztiak, eta 6510 zenbakikoaren erakoak ere bai, alegia, larre segarako urri, garaiera txikikoak (Alopecurus partensis, Sanguisroba officinalis), Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentzarauaren arabera, zeina natur habitatak eta basa fauna eta flora kontserbatzeari buruzkoa baita.

5. Planak Natura 2000 Sarean izan ditzakeen ondorioen balorazioa


Ingurumen Agiri Estrategikoaren E) atalean, zeinak "igarri ahal diren ingurumen eraginak, eta, hala badagokio, haien kuantifikazioa" izena baitu, hitzez hitz jasotzen da ezen "aldaketa puntualaren eremuaren barruan ez dagoela Natura 2.000 sareko ezein espaziorekin bat datorren gunerik, alegia, Batasunaren Garrantziko Leku (BGL), Kontserbazio Bereziko Eremu (KEB) nahiz Nazioarteko Garrantziko Hezegunerik (RAMSAR)".

Artziniegako arau subsidiarioen 4. aldaketa puntualaren eremutik gertuen dagoen Natura 2000 sareko eremua ES4120049 "Mena haraneko basoak" izeneko kontserbazio bereziko eremua (KEB) da, zeina 4. aldaketa puntualaren eremutik 4.000 metrotara baitago gutxi gorabehera, Burgosko probintzian. Ez da aurreikusten KEB honi eragingo zaionik, ezta ere Burgosko probintziatik urrunago dauden beste batzuei ere, Araban esaterako.

6. Ondorioak. Ingurumen oharak

Artziniegako arau subsidiarioen 4. aldaketa puntuala izapidetuz (Artziniegako 4. poligonoko 701 lurzatioko eremu zuhaitzik gabearen zati baten kategoria aldatzeari buruzkoa da, lurzoru urbanizaezin "babes berezi – interes naturalistako gune" eta "basogintzako babeseko" kategoriatik "trantsiziozko landa paisaiaren" kategoriara) ez da ingurumen ondorio aipagarrikerik eragingo, hala uste da, baldin eta izapidetzen bada sustatzaileak ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura honen barruan aurkeztutako agirian azaltzen diren jardunen arabera eta begiratzen badira atal honetan jasotzen diren xedapenak:

1. Artziniegako arau subsidiarioen 4. aldaketa puntualaren eremuak bat etorri behar du, sustatzaileak aurkeztutako agirian aipatzen den gisan, Artziniegako 4. poligonoko 701 lurzati-zuhaitzik gabeko eremuarekin. Alde horretatik, kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala (177/2014 Dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez onartzen baita behin betiko Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala), aldaketa puntualaren eremuak doi-doi etorri behar du bat Nekazaritza eta Basogintzako LPSak Artziniegako 4. poligonoko 701. lurzatiaren "trantsiziozko Landa Paisaia" gisa kalifikatzen duen zuhaitzik gabeko eremuaren 4.194. m²-ekin ez besterekin.



2. Premiazkoa da aplikatzekoa den araudi sektorialean jasotzen diren xedapenak errespetatzea, zeinen artean nabarmentzekoak diren:

- Artziniegako 4. poligonoko 701 lurzatiaren zati bat komunikazio sistema orokorraren figuraren barruan dago, Artziniegako arau subsidiarioen arabera (ALHAO: 2011/06/01), zehazki, A-4625 errepidetik gertuen dagoen zatia. Alde horretatik, aplikatzekoa da arau subsidiarioek nahiz 20/1990 Foru Arauak horri buruz diotena (20/1990 Foru araua, ekainaren 25ekoa, Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzkoa).

- 515/2009 Dekretua, irailaren 22koa, abeltzaintza ustiatzearen arau teknikoak, higie-ne osasun arauak eta ingurumen arauak ezartzen dituenak.

- 209/2002 Errege Dekretua, otsailaren 22koa, erlezaintzako ustiatzearen arauak ezartzen dituenak.

3. Kontuan hartuta Artziniegako 4. poligonoko 701 lurzatiaren paisaia apartekotzat kalifikatzen den eremu batean dagoela, hain zuzen "Peñalbatik Babiorako haranak" izeneko 57 zenbakiko paisaia apartekoaren barruan, hala jasorik Arabako Lurralde Historikoko paisaia bakan eta apartekoen katalogoak (Diputatuen Kontseiluaren irailaren 27ko 829/2005 Erabakiak onartu zuen katalogo hori), bidezkotzat jo da paisaia eraginari buruzko txosten bat egin dadin, egitekoak diren instalazioak paisaian egokiro integratzen direla bermatzeko baldintzak ezarriko dituenak, betiere Artziniegako Udalak baimena eman aurretik aldaketa puntualaren eremu horretan erlezaintzarekin zerikusia duen inolako instalaziorik eraikitzeko. Hala ere, erlauntzak edo erlezaintzako ustiatzearen eraikuntza lagungarriak ezarriko badira, ezingo da zuhaitzik moztu.

4. Ke-hauspoa zuhaitzi hain zabalean erabiltzeak duen sute arriskua den bezainbatean, jakinik badirela Batasunaren intereseko habitat katalogatu 9240 erakoak, alegia, erkameztiak, eta *Quercus faginea* eta *Quercus canariensis* motako harizti iberiarrak, bai eta 6510 erako habitat katalogatuak ere, alegia, larre segarako urri, garaiera txikikoak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*), guztiak ere Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauaren arabekoak, zeina natur habitatak eta basa fauna eta flora kontserbatzeari buruzkoa baita, beharrezkotzat jo da erlezaintzako instalazioaren proiektuarekin batera Arriskuak Prebenitzeko Plan bat idaztea, aintzat hartuko duena batez ere sute arriskua, eta erlezaintzako jarduera garatzeko baldintzak eta betekizunak ezarriko dituen.

Horregatik guztiagatik, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak, 40. artikuluan ematen dizkidan eskurantzak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Honen bidez ematea "Artziniegako arau subsidiarioen 4. aldaketa puntualaren" ingurumen txosten estrategikoa (Artziniega, Araba):

Bigarrena. Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeari jarraituz, ingurumeneko txosten estrategikoa ingurumen erabakiaren ondorioak izango ditu proiektua gauzatzeko neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Agintzea ingurumenaren txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 6a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria
AMAIA BARREDO MARTÍN